

# Umetasun zoriontsua izateko dekalogoia

"Umearen hazkuntzaz gozatu"



**1.** *Umeari beti erakutsi behar diozu zuretzat oso inportantea dela.* Baldintzarik gabeko maitasuna erakutsi behar diozu adin guztietan hauexek baliatuta: hitzak, irribarreak eta keinuak, musuak, besarkadak, ferekak...

**2.** *Haren osasuna zaindu* eta **osasuntsu hazten** lagundu.. Zeu zara haren eredu. Irakatsi bizimodu osasungarriak eramaten, besteak beste, elikadura, jarduera fisikoa, loa, higiena baita emozioak bizi izaten ere. Umore zentzua eduki behar duzu.

**3.** *Egunero, hari denbora eman.* Harekin jolastu gustuak edo nahiak gehiegi zuzendu gabe. Umeak aisialdia izaten saiatu baina bere erara. Izadiak elkarrekin gozatu.

**4.** *Gauza materialak ez dira pilatu behar.* Eman beharreko denbora eta transmititzen dizkiozun edukazioa eta baloreak dira herentziarik onena.

**5.** *Maitasunez hegi.* Ondo egiten duena laudatu baita ahalegina ere. Bete ahal eta behar dituen arauak jarri : gutxi, argiak eta adinera egokituak. Txarto dagoena irakatsi, bortizkeria, zigorra eta umilazioa baliatu gabe.

**6.** *Umearen ikaskuntza piztu eta bultzatu.* Txiki-txikitatik janzteia, bere burua garbitzea edo jatea bezalako eguneroko jardueretan haren burujabetza suspertu . Ez eman dena eginda. Ona da gutxi-gutxika ardurak izatea.

**7.** *Umeari txikitatik entzun eta mintzatu.* Haren munduarekiko interesa erakutsi, adin bakoitzeko aldaketara egokitu eta den modukoa onartu eta baloratu: bakarra eta ezberdina.

**8.** *Segurtasuna, lasaitasuna eta konfiantza transmititu.* Errealak ez diren beldurrak ez sortu, emozioak ulertzen lagundu iezaziozu. Horrela, autoestimua, motibazioa eta gaitasunak indartuko dira.

**9.** *Utziozu ume izaten.* Garaia heldu baino lehen helduen kezkek ez ditu jakin beharko. Horiek horrela, bizitzaren eginkizun garrantzitsuak ezkutatu gabe. Gaixotasuna, mina eta heriotza egon badaudela eta bizitzaren zati bat direla irakatsi eta ulertzen lagundu behar diozu...

**10.** *Familiarekin eta lagunekin umearen harremanak sendotu.* Bizitza guztian zehar ondoan izango ditu. Besteen lekuan jartzen lagundu iezaziozu. Elkarbizitzen eta maitatzen ikasiko du.

